

**K**...eta!  
**Kitto!**

2018-IV-20

1054 zkia.

# Marka solidarioa azalean

**25** URTE zuen  
zerbitzura

*ESKERRIK ASKO gudan  
jarritako konfiantzarengatik*

Tfnoa: 943 741800 / Faxe: 943 741760  
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)



**denolan, s.l.**

ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80  
Faxe: 943 20 18 41 Muzategi, 1 (EIBAR)

denolan@denolan.es





Jarraitu



Bidebarrieta, 8



**hemendik aurrera  
umeendako  
jantziekin**



# 1. ARGAZKI LEHIAKETA



## Erakutsi kontsumo arduratsua nola ikusten duzun

Bidali zure argazkiak **maiatzak 20** baino lehen

[argazkilehiaketa@egoaizia.org](mailto:argazkilehiaketa@egoaizia.org)



Betebeharrekoen inguruko informazio gehiago: [www.facebook.com/egoaizia.com](http://www.facebook.com/egoaizia.com)



### Maiatzak 13

Bidezko merkataritzaren  
Mundu Eguna

### Ekainak 5

Ingurugiroaren Mundu Eguna

#### 1. Saria

Gaua SOSOLA Baserrian,  
2 lagunentzat

#### 2. Saria

Bidezko Merkataritzako  
produktuen otarra

#### 3. Saria

Produktu ekologiko eta  
bertakoen otarra

#### 4. Saria

Fiare Banka Etikoan kontua  
zabaltzea zure izenean

Sari banaketa ekainaren 3an,  
kontsumo arduratsuaren  
III. Azokan, Eibarren



Finantzaketa Antolatzailea





**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi eta  
Malen Jainaga (8. orrialdea).

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## – Preso politikoaren aldeko astea –

Kaixo ...eta kitto! Euskara Elkarteko kideak. Zuekin zorretan nagoelako (astero aldizkaria pozarren jasotzen dudalako), nire esker ona adierazteaz gain, lerro hauen bitartez gogorazi nahi dizuet apirilaren 14tik 21era munduan preso politikoaren aldeko astea dela, eta Bilbon gure aldeko manifestazioa egingo dela azken egunean, hau da, martxoaren 21ean.

Aurten nire espetxealdiaren 18. urtean sartu naiz. Hasierako urteak izan ezik, gainerako urteak Andaluzian gordeta eduki naute Kordoba eta Puerto I espetxeen artean. Gaur egun, dakizuen bezala, Kordoban nago. Euskal preso politikoak isolamenduan gaude Kordoban (emakumeen moduluan dagoen Ana Egues izan ezik). Bi ibilgu edo galeriatan bananduta gauzkate eta ni nagoen galerian bi txanda ezberdinetan ateratzen gaituzte patiora. Hori dela eta, bisitara goazenean elkartzen gara bakarrik.

Egunero patiora ateratzeko aukera (lau ordu egun bakoitzean) eta astero bi egunetan ustezko gimnasia-gelara ateratzeko eskubidea daukagu (hiru ordu aldi bakoitzean). Gainerako orduak ziegan pasatzen ditugu, ikasten ari direnak izan ezik (hauek astero hiru aldiz konputagailuak gordeta dauzkaten gelara ateratzen dira, hiru ordu aldi bakoitzean). Ni ziega orduetan irakurtzen eta gutunak idazten aritzeaz gain, sorkuntzan aritzen naiz. Mahaiaren aurrean leihoa dago. Barra handi batzuk eta

burdin sare bat ezarrita dauzka, eta bost metrotara horma bat dago.

Gure kolektiboak egin zuen eztabaidaren ondoren, bigarren gradua lortzeko bidea egiten ari naiz nire abokatuarekin. Horretarako, espetxeetarako araudia erabiltzen ari naiz, eta nire abokatuak helegite bat jarri dut dagoeneko Zaintzaren Epailearen aurrean bigarren gradua nire alde eskatzeko eta Euskal Herrira nazaten. Dena dela, bidea koxkaz beteta dagoela esan behar dizuet, Lege Antiterroristaren mende gaudelako eta isolamenduan ezin dituzulako merituzko orriak lortu bidean aurrera egiteko. Nik, dena dela, lan-destino bat eskatu dut (patioa eta bere komuna garbitzeko) eta isolamenduaren egitasmo edo programan parte hartzea. Bestalde, eskatu dut gutun interbenzioa kendu diezadatelara eta baita ere errespetuzko modulura eramanez nazatela. Bestalde, Foru Sozialak eskatu dizkigun urrats guztien alde nago. Hala ere, espetxe honetan eta Espetxeetarako Zuzendaritzaren egoitzan ematen du ez dakitela zer gertatu zen 2011. urteko urriaren 20an eta ezta iazko apirilaren 8an ere. ETA erakunde desegin-go balitz (Gararen arabera udaberrian), ziur asko horrela jarraituko lukete. Guk, dena dela, bidean jarraituko dugu orain bertan Xabier Rey Urmene-taren omenez.

Ibon Muñoa Arizmendiarieta

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MAMA.**- Ume-berbetan, ura. "Ama, emoixozu mama umiari".

**MAMARRU/MOMORRO.**- Umien berbetan, mamua. "Ixildu zaitte, mamarrua dator bestela!".

**MAMELO.**- Ume hizkeran, karamelo. "Mamelo eske dago umia".

## astean esanak

"Euskarafobiaren kronikako diskurtsoan matxismoa ere nabaritu dut, iraina eta nagusikeriarekin batera. Une batean ezkerrean zeuden, eta gaur egun batek jakin non, adimen-lotsagabekeriaren jabe dira. Badira onartu zaien statusa dutenak, euskeraren inguruan ezer ez dakitenak. Euren eritzi gehienak nagusitasun linguistikoaren ondorio dira, ezjakintasunari lotuak, asko gainera hizkuntzan espezializatuak. Testosterona barra-barra! Euskera harrizko mintzaira, 'mariko' parekorik ez duena, fosil biziduna, txikiteorako hizkuntza, amodioa egiteko balio ez duena... zer ez dute esan!"

(JOAN MARI TORREALDAI, IKERTZAILEA)

"Marketin modernoaren teknika transbertsalek lortu dute gaur egun edozein neskak etxean ikusi ahal izatea *Loti ederra* telebistan, loti ederraren panpinarekin jolasten duen bitartean eta neskatoak berak loti ederraren soinekoa gainean jantzita daramala. Eskolara joan daiteke Bratz eta Barbie panpinak gainean dituela eta, etxera bueltatzean, Disney printzesen apain-mahaiko ispilutxoan begiratu dezake bere burua. Marketin estrategiek lortu dute neska erreala eta panpina fusionatzea duela gutxira arte pentsaezina litzatekeen mailan. Fusio hori haurtzaroz gaindi luzatu daiteke, gazte askoren nahia panpina baten moduan bizitzea izateraino"

(NATASHA WALKER, IDAZLEA)

"Nazioarteko hizkuntza deitzen ohi zaio ingelesari, baina gezurra da hori: nazioarteko hizkuntzak daude. Jaioterriaren arabera, munduko hizkuntza bat edo beste dela irudituko zaio bakoitzari: Egipton jaiotz gero, arabiera; Euskal Herrian, ingelese; Hego Amerikan, espainola; Afrikan, swahilia eta hausa... Gauzak ez dira esaten diguten bezain sinpleak. Nazioarteko hizkuntza horien guztien artean esperantoa ere badago. Eta loraldia izan du internet sarearekin: gazte jende asko ari da ikasten eta esperantistok badakigu oso ondo funtzionatuko lukeela gobernu ahaltsuak inplikatu balira; nahikoa litzateke hiruk jator jokatu balute"

(AITOR ARANA, IDAZLEA)



IKER ARANBERRI

## Teknologiaren marra gorria

Patata edo tomatea noiz landatu behar den esateko gai ez garen garaiotan, iparrorritik gabe iparra nekez aurkituko genukeen sasoiotan, tarteka gizateriak historian zehar ikasitako jakinduriarekin eta pilatutako ezaguerekin beteta dagoen motxilara jotzearen garrantziaz ohartzea ezinbestekoa dela uste dut. Egia da teknologia bizitza asko errazten digula, eta berari esker hainbat prozesu errazago, azkarrago eta erosoago egin ditzakegula. Baina sarri garapenaren marra gorria zeharkatzen dugula iruditzen zait, gure egunerokotasunean tresna osagarri izatetik ezaguera batzuk ordezkatzera pasatzen delako. Marra gorri hori da, nire ustez, teknologia berririk gabe zerbait egiten asmatuko ez genukeen une hori. Eta une horrek, neri behintzat, aldi berean beldurra eta pena ematen dit. Beldurra alde batetik, teknologiarekiko erabateko mendekotasuna saihestu nahi izan arren, gure egunerokotasunak horra bideratzen gaituela somatzen dudalako. Eta pena bestetik, gure arbasoek ehunka eta milaka urtetan zehar ikasten eta barneratzen joandako jakinduria belaunaldi gutxitan galtzeko arriskua ikusten dudalako. Gure arbasoen munduarekin haustura gauzatzen da, mundu horretako paradigma asko galtzen ari direlako. Galtzeaz da eskuz idazteko gaitasuna, ordenagailuz idazten dugulako. Galtzen ari da naturak bere ekintzekin esaten diguna ulertzeko gaitasuna, internetek galdetzen diogun guztia esaten digulako. Galtzeaz da bizitza patxadaz hartzeko ahalmena, bizitzako esparru guztietan teknologia berriekin ematen diguten bat-batekotasuna bilatzen dugulako.

## Eibartarrak japoniarrekin bat egingo dabe bixar

Bixar Ipuruan partidua jokatu da eta japoniar talde haundi bat Inui, Honoka Yonei nesken taldeko jokalarixa eta Gaku (Getafe) ikustera etorriko dirala eta, horren aitzakixarekin, 19 tabernatan japoniar kutsua daken pintxo, edari eta bestelako kutxiak preparauko dittue. Eki-mena herriko tabernarixak antolatuta dabe, Eibar Merkataritza Gune Irekia, Eibar K.E eta Udalaren laguntasunarekin, "herrixa animatzeko asmuarekin". Horrekin batera, hainbat taberna oka-

siñorako bereziki apainduko dittue eta kaliak girotzeko, barriz, Ustekabe txarangakuak kalejiran ibilliriko dira eta umiendako puzgarrixak ipiñiko dittue Untzagan eta Ego Gaiñen. Eki-menarekin bat egin daben tabernak Akara, Arkupe, Birjiñape, Bossa, Buenos Aires, Chic, Dos de mayo, Foxter, Kontent, Koskor, Kultu, Laurel, Oishi, O'jays, Paulaner, Slow, Tunelpe, Txoko eta Xok dira.



## Udaleko Obra saillaren "kolapsoa" salatu dabe jeltzaliak

EAJ-PNVk salatu dabenez, Eibarko Udalak bi hilleko atzerapena pillatu dau lau kontrataziñoren esleipen-prozesuan. Atzeratutako lanak 1.621.992,34 euroko inbersiñua dakarte eta, diñenez, "txosten teknikuak otsaillaren 20rako prest egon bihar eben". Gauzak holan, Josu Mendicutek zerbitzuak kontratatzia proposatu

dau: "Izan be, gaur egungo udal gobernuaren lirdergo faltak eta Errebalen geldiaraztiak kolapsatu egin dabe" obrak kudeatu bihar dittuan sailla. Horrekin batera, atzeratutako lanen proiektuak Jardiñetako igogaillua, Saratsuegiko irisgarritasuna hobetzeko lanak eta Astelena frontoiko egitura sendotzia dira.



## Gin Tonic lehiaketaren bigarren asteburuaren aurrian

Aurreko asteburuan bezala, oinguan be jokatu da ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik martxan dagan Gin Tonic lehiaketa, 3. ediziñorako izena emon daben 14 tabernetan (Akara, Amesti, Ametsa, Arkupe, Chic, Dos de Mayo, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Laurel&Hardy, O'jays, Slow eta Xok). Domekara arte gin-tonic bat edaten daben bezeruak botua emoteko aukeria eukiko dabe eta bozketa horretatik urtengo dira maiatzaren 4an Untzagan jokatu dan finalerako hiru tabernak.







Urteroko ekitaldixekin batera, aurten Jaka eta Sahagungo alkatiak izan dittugu gure artian.



## Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gogoratu zan zapatuan

Eibarren beste inun baiño lehen Espainiako II. Errepublikia aldarrikatu zala 87 urte bete ziran zapatuan, apirilaren 14n eta, urteroko moduan, geure herrixarendako historikua dan eguna gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu dittue aurten be. Oin-guan, gaiñera, Errepublikia aldarrikatzen bigarren eta hirugarren herrixak izan ziran Jaka eta Sahagungo alkatiak, Lisandro Garcia de la Viuda eta Juan Manuel Ramon, gure herrixan ospatu dabe urteurrena, Eibarko Udalak gonbidautu. Barixaku arratsaldian harrerria egin zetsen Miguel de los Toyos alkatiak eta, oroigarri modura, oin dala urte bi berreskuratu eben aktaren kopixa bana eta baktoxaren herrixaren armarrixa damaskinauta dakan intsignia bana emon zetsen, ondoren Museora bisitan juateko. Zapatuan, barriz, eguardi aldian Untzagan hasi zan ekitaldixarekin gogoratu eben Errepublikia Gazte Komunistak eta Ezker Anitza-IUK. PSE-EE alderdikuak, barriz, sozialisten egoitzako balkoian Errepublikaren banderia igo eta, jarraixan, Txaltxa Zelaixan txapliguak bota zittuen, Legarreko frontoian alkarrekin bazkalduta eguna biribiltzeko.

## autuan

### ESKOLETAKO JOLASTOKIAK ZABALIK

Bixar eta datorren zapatuan arratsalde zabalduko zabalduko dittue Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu eskoletako jolastokixak, nahi dabenak han jolasteko aukeria euki deixan. Udalaren ekimenez zabalduko dittue patixuak, 16:00etatik 20:00etara.

### AURKEZPENA ETA ESKERTZA-EKITALDIXA MUSEUAN

Bixar eguardixan aurkeztuko dabe Armagintzaren Museuan objektu damaskinatuekin osatu daben erakusketa barrixa eta, horrekin batera, Museuari egindako azken donaziñuak dirala-eta, eskerrak emoteko baliatuko dabe ekitaldixa.

### SANJUANETAKO SALTZAILLIEN ZERRENDAK

Udalak argitara emon dittu San Juan jaixetan kalian saltzeko eskaeria egin dabenen onartuen eta baztertuen behin-behiñeko zerrendak.

Oin maiatzaren 9ra arteko epia eukiko dabe eskatzen detsen dokumentaziñua aurkezteko eta, horren ostian, behin-betikuen zerrendia emongo dabe ezagutzera. Informaziño guztia eibar.eus helbidian eskuratu leike.

**CAPI** Bidebarrieta, 5  
 943 201 547  
 www.capiestetica.es

CoolLifting®  
 Lifting tratamendu BERRIA!

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

Powered by BODY

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**  
**PROGRAMA BERRIAK**  
 Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen  
**4 salorako bonoak**

Masajeak Personalizatua

Hileroko bonoak  
 ...astero bakarrik 20 minutu eginez

Ipini zaitez sasoi onean ...

Funeraria·Ehortzetxe  
**Mugica**

**EIBAR**  
 Beilatokia  
 Funeuskadi Eibar:  
 Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
 Beilatokia:  
 SIGMA Industrialdea  
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra  
 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi



IDURRE IRIONDO

## Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketia

Eibarko Udaleko Ingurumen Saillak herriko balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketia jarri dau martxan, Debegesaren laguntzarekin. Egitasmuarekin herriko ingurumen kalidadia eta itxuria hobetzia billatzen dabela diñue, "herrigune atsegiñagua eta ederragua lortzeko eta landariak zaintzeko ohitturia zabaltzeko". Herri maillako bi sari banatuko dira parte-hartzaillien artian, Eibarko Merkataritza Gune Irekiko kide diran saltokixetan erabiltzeko 150 euroko sari bana. Horrekin batera, eskualde maillako sari bat, 200 eurokoa be emongo

dabe, irabazliak bere herriko saltokixetan erabiltzeko.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, apirilaren 24tik maiatzaren 15era arte emon leike izena Pegoran edo, bestela, hillaen 25ian 10:00etatik 13:00etara Untzagan egingo daben lore-banaketan be egongo da aukeria. Horretarako, Pegoran eta [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunian eskuragarri dagan inprimakixa bete biharko dabe. Ekimenaren gaiñeko informaziño gehixago lortzeko 943 70 84 08 telefonora deittu edo ingurume-na@eibar.eus helbidera idatzi leike.



**millioi euro baiño zeozer gehixago, 2.648.273 euroko zorra dauka Eibarko Udalak. Zorra aurrekontuaren %1,4aren parekua da, Foru Arauak ezarrirta dakan %25eko gehixeneko muga baiño askoz txikixagua.**

## Batzarra egin eban AKEBAIk martitzenian

Martitzen arratsaldian egin zan Eibarren AKEBAIren Batzarra, udaletxeko Pleno Aretuan, aurreikusittako gai-ordenari jarraituta. Batutako akekidieri 2017ko memorixia eta balantze ekonomikua aurkeztuta ekin jakon batzarrari. Jarraixan, 2018ko plana eta aurrekontua azaldu zittuen eta, ondoren, batzarrera juandakuak aho-batez onartu eben bozka bidez. Ohiko gai horreru heldu ondoren, inkesta bittartez egindako AKEBAI markaren inguruko diagnostikua aurkeztu eben eta, agurtu aurretik, "Hamaika Berbaldi" eta Euskaraldia egitasmueri buruzkuak azaldu zittuen.



## Maria Nieves Urionabarrenetxea Jaio

*Apirilaren 16an hil zen, 72 urte zituela*

**FAMILIAREN IZENEAN ESKERRAK, hileta elizkizunera joan eta samin agurrak emandako guztiei.**





## Errentaren kanpaiña ekaiñaren 30era arte egongo da zabalik Gipuzkoan

Hasi da errenta aitortenaren kanpaiña Euskal Herri osuan eta Gipuzkoako Aldundiak astelehenian ekin zetsan bere zergapekuekin kontuak kitatzeari. Egun horretan bertan hasi eta amaittu zan errenta aitortena millaka gipuzkuarrendako, telefono edo internet bidez dagoeneko 11.000 zergapekok adierazi eben-eta ados eguzela Diputaziñuak aurreko astian bialdutako aitorten-proposamenarekin. Ogasunak bialdutako 250.000 autolikidaziño proposamenetik, ia hamarretik bederatz onartzen dittue zergapekuak. Autolikidaziñuak errenta aitortenen bi heren dira, baiña beste heren batek bere kabuz egin bihar izaten dau, aitorten konplikatuguak dittuelako. Azken horrerri barixakuan za-

balduko detse hitzordua eskatzeko epia eta buleguak, barriz, astelehenian zabalduko dittue. Aitortena jaso eta onartu ez dabenak, barriz, apirillaren 26tik aurrera eskatu leikie mekanizaturako hitzordua. Danak be, ekaiñaren 30a izango dabe horretarako azken eguna. Aurtengo barritasunen artian ZergaBidea plataformia dago, errenta aitortena aurkezteko laguntza programa barrixa: euskarri barrixak autolikidaziño proposamena deskargatzeko aukeria emoten dau, baitta aitortena bertan egin eta aurkezteko be. Azkenik, euskeriari begira, azken hamarkadan bikoiztu egin da euskeraz aurkezten dabenen kopurua, baiña, halanda be, oindiok aitortenen %15 baiño ez dira.

## Euskal Jaiko artisau azokarako izen-emotia zabalik dago

Aurtengo Euskal Jaixaren barruan artisauen azokia egingo da maiatzaren 26xan, 10:00etatik 14:30xetara Toribio Etxebarria kalia. Horren harira, Eibart artisau alkartekuak parte hartu nahi dabeneri dei egin nahi detse, azokarako izena emon deizen. Azaldu dabenez azokia 5x5 metrotako karpa zabaletan izango da eta postu bakotxak 2'5 metro izango ditto, 2 metroko mahai eta aulki batekin. Izena emoteko epia apirillaren 30era bitartekua da eta interesa dakanak eibart.artisauak@yahoo.es helbidera idatzitta egin biharko dau eskaeria, postuaren izena, artisauaren izen-abizenak, telefonua, e-mailla, artisau-eroldako agirixa eta egitten daben lanaren argazkixekin batera.





**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28  
 ☎ 943 20 79 73


**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
 Orbeako dorreak / 1. solairua  
 ☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Anali Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia <span style="background-color: #4a90e2; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>
9) Psikiatria	18) Psikologia <span style="background-color: #4a90e2; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>



**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar



104,0 FM



...eta kitto! Euskara Elkartea



25!

**“Jarrai dezagun  
bidea elkarrekin  
egiten”**





Garelako  
eta izango garelako..  
ospa dezagun elkartearen

# 25. urteurrena

MUNDIALA IZANGO DA

Apirilak 22, domeka  
eguerdiko 12:00etan  
Coliseo Antzokian



Mugimendu handiko sasoia da jubilatuentzat. Nagusien Hamabostaldian buru-belarri sartuta ibili dira azken bi asteotan, kaleetan eta despatxuetan borroka eredugarria egiten dihardute pentsio duinen alde, eta erronka berriak dituzte etorkizunera begira. Etengabeko lan horren eredu da Felix Elkoroiribe Biztu elkartearen (Eibarko Jubilatu eta Pentsiodunen Koordinakundea) presidentea. Esku artean dituen hamaika kontuak eta bere kideen eskakizunak momentu batez utzi eta tartetxo bat eskaini digu.

## FELIX ELKOROIRIBE

(BIZTU elkartearen presidentea):



# “Jubilatu berriek beste gauza batzuen beharrak dituzte”

**- Jubilatzea atsedena hartzarekin lotzen da sarritan, baina zuen aktibitatea ikusita ez dago atsedenerako tarterik.**

Nik behintzat ez dut atsedenerako tarterik eduki jubilatutik nintzenetik. Gitarra klaseekin hasi nintzen jubilatutik etxean, presidente izendatu ninduten eta zortzi urte daramatzat. Orain arte ez naiz gelditu, baina frenatu beharko nuke.

**- Oraindik amaitzeaz badago ere, nola joan da aurtengo Nagusien Hamabostaldia? Nolako balorazioa egiten duzue?**

Oso ondo irten da dena eta gure balorazioa ezin hobea da. Oñatiko txangora 88 lagun joan ginen, eta nahiz eta eguraldi txarra egin, irteera polita izan zen. Pello Arrosagaray Mendaroko Ospitaleko medikuak ‘Sexualitatea Pertsona Nagusiengan’ hitzaldia eskaini zuen joan den barixakuan eta ez zen jende asko etorri, baina oso hitzaldi interesgarria izan zen. Astelehenean, azken hilabeteotan egin ohi dugun moduan, pentsio duinen aldeko kontzentrazioa egin genuen; eta arratsaldean prozesu kognitiboetarako buruzko hitzaldi aparta eskaini zuen Javier Ruiz neurologoak Beheko Tokian. Nola ez, kartetan egin, eta toka eta igel-toka txapelketak ere jokatu ditugu. Arrateko bazkari eta omenaldiekin emango zaie amaiera jardunaldiari, baina

orain arteko balorazioa oso ona da (gaur amaituko dira jardunaldiak eta elkarrizketa eguaztenean egin zen).

**- ‘%0,25arekin ere, zaharrok gogor’ izan da aurtengo edizioaren goiburua. Zeintzuk dira zuen errebindikazioak?**

Gure ustez pentsioen gaian ez dago eztabaida seriorik eta kongresura eraman behar dugu horregatik. Boterean gobernu bat edo beste egon, pentsioetan KPlaren arabera igoera bermatuta egon behar dela uste dugu. Pentsioak finkatzeko urrezko aukera izan zuten aurrekontuak zehazteko bildu zirenean, baina politikariei ez die batere ardura.

**- Astelehenero irteten zarete kalera pentsio duinak aldarrikatzeko. Ekintza gehiago egitea pentsatzen duzue?**

Maiatzaren 19rako manifestazioa prestatzen gabiltza, baina zehaztu beharra dago oraindik. Maiatzaren 17an aurrekontuen inguruko eztabaida egongo da Kongresuan eta guk eskualde mailako manifestazioa egin nahi dugu Eibarren.

**- Borroka horretan beste belaunaldientzat eredu zaretela uste duzue?**

Urtero pentsioen igoera bermatuko duen legea zehaztea guretzat garrantzitsua da, baina baita gure atzetik datozenentzat ere. Guk urte askoan kotizatu du-

gu eta gobernu batek esan zuen gure dirua ‘kaxa bakarrean’ kotizatu genuela. Zein ‘kaxa bakar’? Guk Madrilgo gobernuarentzat kotizatu dugu eta Konstituzioaren 50. artikuluan zehazten da pentsio duinak egongo direla eta balioa hartuko dutela KPlaren arabera. Non geratu da hori? ‘Kaxa bakarrean’ kontuarekin nahastu nahi gaituzte.

**- Biztuko presidentea ere bazara. Zeintzuk dira zure ardurak?**

Behin behineko kargua da. Izan ere, Eibarko Gizarte Diagnostikoa egin dugu Udalarekin elkarlanean eta Nagusien Hamabostaldia amaitzean bilduko gara diagnostikoaren emaitzak ikusita Bizturen funtzionamendua birplanteatzeko.

**- Eibarren 65 urte gorako gero eta jende gehiago dagoela adierazi du diagnostikoak, besteak beste. Nagusien inguruan politika eta neurri berriak hartu beharko dira diagnostikoaren emaitzak ikusita?**

Bai, nahita nahiez. Nik beti eredu bera jartzen dut: Bizturen eskaintza nagusia informatika ikastaroak dira, baina gaur egun jubilatzen direnek badituzte informatikaren inguruko ezagutzak. Gauza berrietara zabaldu behar dugu. Jubilatu berriek beste gauza batzuen beharrak dituzte eta ezin gara zaharkituak geratu, bidea egin behar dugu.



Hitzaldi interesgarria izan zen aurreko asteko eguenean Udal Artxiboan. Federico Rodriguez Cabezón ikerlariaren konklusioen berri izan zuten bertaratutakoek eta, horren arabera, O'Donnell kaleko bonba "ez zen lehertu, ez lurra ukitzean, ez airean, eta ezta tunel barruan ere". Aipatutako konklusio horiek zuhurtasunez hartzea gomendatu zuten ikerlariak, "gertakari hura argitzen laguntzeko ikuspegi tekniko soiltzat jotzea, alegia". Udal Artxiboan arlo askotako jendearekin bete zen eta han izandakoek gogoz hartu zuten parte hitzaldia amaitzean.



*Federico Rodriguez Cabezón bere ikerketen emaitzak ezagutarazi zituen, baina "gertatutakoa argitzeko asmoz, ez jurisprudentzia ezartzeko helburuarekin".*

## O'Donnell-eko bonbak ez zuten eztanda egin

**D**okumentu askotan oinarrituta, Matematikako kalkulu ezin zehatzagoak eginda eta gaia Fisikako problema bat balitz bezala planteatuta, Federico Rodriguez ikerlaria aipatutako ondorio horietara heldu da bi hipotesi hauetatik abiatuta: bonba tunelaren kanpoko aldean edo tunel barruan (gerrako 14. babeslekua) lehertu zela, edo ez zela lehertu.

Lanaren helburu nagusia ez zen, inondik ere, babesleku hartan hildako pertsonak zenbat izan ziren jakitea, gertakariaren inguruko hausnarketa bat egitea baizik, nola zitekeen hainbeste pertsona hiltzea kalte materialak hain txikiak izanda. Eta, planteamendu benetan berezi batetik abiatuta, Federico Rodríguezek konklusio horiek zuhurtasunez hartzea gomendatzen du.

45 bat lagun izan ziren ordu eta laurden iraun zuen hitzaldia jarraitzen –Udal Artxiboak ez du gehiagorako ematen– eta denetarik egon zen, "Matematika irakasleekin batera, baita Historiarekin interesatutakoek ere; zahar eta gazte". Hizlariak bost kalkulu-orri eraman zituen, baina ez



*Bonba jausi eta ordu erdira ateratako irudia. Tranpantojoa dagoen tokitik hainbat metrora, udaletxetik gertuago, egin zen zuloa.*

zituen erabili "batzuekako nekagarri ez izateko erreparoarekin". Rodriguez ingeniariak urte guzti hauetan lan guztiz zientifikoa egin du, sinestuta baitago Historiako horrelako pasarteetan Matematika eta Fisikak ere asko lagundu dezaketela gertatutakoa aztertzerakoan.

Condor Legioko alemanek botatako bonba 250 kilokoak zen Avilako Militar Artxiboan azaltzen denez eta O'Donnell kalean egindako zuloa eta ingurukoak ez daturatzen eztanda egitearekin, "kasu horretan triskantza askoz handiagoa izango zela". Santiago Arizmendiarietak bere memorietan 50 hildako izan zirela dio eta Avilan, bestalde, 70eko kopurua aipatzen da. Zenbat hildako izan ziren ez zuten zehaztu nahi izan ingeniariak, baina bere ustez "babeslekua toki ez aproposenean egoteak izan zuen eragina hildakoak egoteko", ez bonbaren eztegaririk.

Rodriguez Cabezón bilbotarrak urteak egin ditu lanean gerran zigortutako pertsona batzuk ahanzturatik ateratzeko eta Gernikako bonbardaketa ere aztertu du.



### JAVIER GOROSABEL URKIA

*III. urteurrena: 2015-IV-21*

*"Zure bizitzak argitu gaitu eta ikaslarazi digu, lagun, hitzaren esanahia aberasten eta kolorez betetzen. Abentura bihurtzen zenuen egunerokoa. Maite zaitugu, Firilo, eta ederra putada joan zarenetik!  
Mundua aspergarriagoa da zu gabe...."*

**ZURE LAGUNAK. BETIKO.**





lazko arrakastarekin animauta, bigarrenez antolatu dabe tatuaje solidarixuen inguruko ekitaldixa. Astelena frontoian izango da, bixar, goizeko 10:00etatik 20:00etara. Aurrekuan egindakuaen bidia irarrituta, oinguan be nahi dabenak tatuajia egitteko aukeria eukiko dau, 50 euro ordainduta. Eta iazko moduan, aurtan be egunian zihar batzen daben dirua gaixotasun arraruak eta diagnostikatu barikuak daken umien alde lan egitten daben alkarte biri, Berritxuak eta AFESD izenekueri laguntzeko erabiliko dabe. Tatuajiak zelan egitten dittuen ikusi eta norberak tatuajeren bat egitteko tartia ez eze, bixarko ekitaldira gerturatzen diranak txosna txiki bat, umiendako jarduerak eta DJ-ak eskinduko daben musikia topauko dittue.

## Solidaridadia tintarekin azalian markauta

**B**ixar "Los tatuajes marcan la diferencia" izeneko ekitaldixan parte hartuko daben tatuadoriak Manolo (Manolo Tattoo's), Peio eta Fabio (Sugaar Tattoo), Lanas eta Txis (El Gato Negro), Javi (Ara Tattoo), Mosca (K3 Tattoo), Naiara (Nare Tattoo), David, Ioritz, Dani, Jose (Jolly Rogern Tattoo&Piercing), Ana (Arcos Tattoo), Cleyviton Studio Tattoo eta Pope Tattoo dira, *"gehixenak iaz parte hartzen egon ziran eta errepikatzer animau dira"*. Halanda be, azken orduan baten bat gehixago animau leikiala pentsatzen dabe.

Aurrekuan Untzagako jubilau etxiak lagatako gela polibalentian jardun eben ta-

tuajiak egitten, baiña hala moduz moldatu bihar izan ziran, biharrian ibilli ziran hamabi tatuadoriak eta tatuajia egitten eguzen lagunak, besterik sartzeko aukerarik ez eguan eta. Lokala txiki geratu jakuela ikusitta, bixar egingo dan bigarren ediziñorako toki haundixagua billatzen ibilli dira antolatzailliak eta, azkenian, Astelena frontoian izango da ekitaldixa. Holan, iaz goizian goizetik sortutako illarak saihestu nahi dittue eta, horrekin batera, toki gehixago eukitzian, jendiak tatuadoriak biharrian ikusteko aukeria be eukiko dau, beste toki batzuetan egitten diran topaketetan bezala.

Egun osuan biharrian jardungo daben tuadore guztiak musutruk egingo dabe lan eta produktuak saltzen dittuen marka batzuk be lagunduko dabe, tatuajiak egitteko materixala duan emonda. Horri eskerak tatuaje baxotzeko jasoko dittuen 50 euroak oso-osorik alkartieri laguntzeko izango dira.

### 100 tatuaje edo gehixago

Diseñuak orohar txikixak izaten dira, nahiko azkar egitteko modukuak, "azken batian helburua ahalik eta tatuaje gehixen egittia" dalako. Iaz egun osuan gogotik biharrian jardun eta gero, danera 100 ta-



## EUGENIO ZUBIA BASTIDA

I. URTEURRENA: 2017-IV-21

*"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"*

ETXEKOAK





tuaje inguru egin zittuen eta, horri esker, 5.500 eurotik gora bildu zittuen. Kopuru hori erdibittu eta 2.786,25 euroko taloi bana entregau zetsen Berritxuak eta AFESD alkarteko ordezkariari. Normala dan moduan, bixak pozarren jaso eben laguntzuna eta, diru horrekin, urtian zihar ekitaldixak antolatzeko zein gaixotasun arraruen inbestigaziñuak eragiten dittuan gastueri aurre egittek aukeria izan dabe.

Lehelengo ediziñuan bezala, bigarren honetan be Isasi kalian dagan Ara Tattoo estudixoko Javi Garcia eta Rakel Santana arduratu dira antolaketa kontuekin. Izan be, iaz ekimenak oso erantzun ona euki eban eta, hori ikusitta, bigarrenez antola-



Iaz 100 tatuaje baño gehixago egin zittuen eta, horri esker, 5.000 euro baño gehixago lortu ziran.



Tatuaje bakoetako 50 euro kobrauko dabe eta, hortik kanpora, Astelena frontoirako sarrerak 2 eurotan egongo dira; diru guztia alkartieri laguntzeko izango da

tzera animau dira. Topaketarako toki haundixagua izatiak gauzak hobeto egittek aukeria emongo detsela pentsatzen dabe eta, esan dabenez, "oinguan tatuadore

bakotxak biharrian jarduteko bere tokixa eukiko dau, gerturutzen dan jendiak biharra zelan egitten daben ikusi ahal izango dau, eskintzen dittuen diseiñuak begiratzeko aukeria be eta, bixen bittartian, tatuajia egittera animatzen diranak, tatuadore bakotxaren agenda bete arte txandia hartu ahal izango dau".

Gaiñera, oinguan toki gehixago egotiak jende gehixago erakarriko dabela aurreikusitta, frontoira sartu nahi dabeneri 2 euroko sarrerria ordaintzia eskatuko detse eta, sarrerren salmentatik batzen dan diru hori be tatuajiak egitten batzen dabeneri gehittuko detse, dana alkarte bixen artian banatzeko gero.



# HITZALDIA

Maite Arroita Jauregi "Mursego"

"%100 Oion"

Elkarbizitza sustatu eta zurrumurrak uxatzeko diskoa

MAIATZAK 4,  
 barixakua, 18:30ean  
 ...eta kitto!-n

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:





## Marta Marina eta Amagoia Gomez:

# “Batukadak bizipoza eta indarra ematen digu”



- *“Eibarren zer bait mugitzen ari da. Emakumeok baketak eta kaleak hartu ditugu. Probatu nahi?” izenburuarekin Eibarko Batukada Feministan parte hartzeko gonbitea egin diezue Eibarko emakumeei. Nola sortu da proiektua?*

**Marta:** Batzuk Jabetze Eskolak antolatuta izan dituen batukada ikastaroetan parte hartu izan dugu. Azkena joan den udan izan zen, baina taldea berez urrian sortu dugu. Froga bat egin nahi genuen, zer gertatzen zen jakiteko eta, talde polita sortu dugunez, jarraipena eman nahi izan diogu. Jabetze Eskolan genituen irakasle berak ditugu, baina orain talde autonomoa gara, geure kabuz dihardugu, talde autogestionatua da eta, nahiz eta hasieran taldea Naluako kideok bultzatu, argi laga nahi dugu gauza desberdinak direla, pertsona independenteak joan dira gehitzen eta “Eibarreko Batukada Feminista” gara.

- *Nork har dezake parte taldean?*

**Amagoia:** Herriko edozein emakumeek har dezake parte, baldintza bakarra da emakumea izatea. Aniztasuna sustatu nahi da arlo guztietatik. Ez dago inori itxita. Adin

desberdinetako jendea gaude, 20 urtetik hasita 60 urtera, batzuk ama-alabak dira. Bakoitzak bere bizipenak dauzka eta hori ere aberatsa da. Euskarari garrantzia ematen diogu eta euskaraz jarduten dugu. Bestetik, Euskal Herri mailan Batukada Sare Feminista dago eta eurek antolatzen dituzten irteeretara apuntatu gaitezke. Eibarren deialdi bat egin zen, Ilargi Fest. Hori izan da orain arte Eibarren egin dugun irteera eta horretara Euskal Herri mailako Sareko emakume batzuk etorri ziren.

- *Beraz, Euskal Herri mailako mugimendu idartsu bat sortu da...*

**Marta:** Sare horretan 400 pertsona inguru egongo dira. Irakasle hauek herri desberdinetan ematen dituzte klaseak eta azkenean Sare bat sortzea lortu dute. Email bidez esteka bat bidaltzen da eta nahi baduzu izena eman dezakezu. Batukada Feministan emakumeon ahalduz lantzen da, emakumeok kaleak hartzeko eta saretzeko balio du. Aberasgarria da oso. Hemen kontua ez da dena perfektu egitea; ondo pasatzera gatoz, esperientziak elkarbanatzera. Taldea denentzako espazioa da eta Eibarren feminismoa bizirik dagoela erakutsi nahi dugu.

- *Zergatik animatu zintzen parte hartzera?*

**Amagoia:** Ez da bakarrik musika jotzea. Musika gozatzen dugu, baina, perkusioaz aparte, beste jardueira eta dinamika batzuk lantzen ditugu, hausnarketa egiteko. Nik feminismoa

bizi izan dut, baina ez borroka edo ideologia bat bezala. Amatasunarekin beste kezka batzuk sortu zaizkit eta sozialki beste esparru batzuk bilatzeko beharra sentitu dut. Batukadak bizipoza eta energia ematen dizu, eguneroko arazoak ahaztu egiten dituzu, emozioak lantzen dira. Niretzako denbora hartzeko modua izan da, eta jende berria eta desberdina ezagutzeko aukera. Kalearena pasada bat da, batzuei ez zaie gustatzen eta bakarrik entsaiotara etortzen dira... Ni pare bat aldiz irten naiz kalera, Arrasateko psikiatrikoan eta Lila-toian, eta sinistezina da kalea hartzeak ematen dizun indarra eta *subidoia*. “Hemen gaude gu” esateko modua da eta oso energia eta bibrazio ona sortzen da.

- *Beraz, musika eta erritmoetatik abiatuta arlo desberdinak lantzen dira...*

**Marta:** Instrumentuak oso sinpleak edo oso konplexuak izan daitezke. Eta erritmoekin gauza bera gertatzen da. Nik adibidez tinba jotzen dut. Jabetze Eskolan ikasi nuen. Nahiko zaila da, baina orain horrekin jarraitzen dut. Kide bakoitzak apurka apurka instrumentu desberdinak probatzen ditu eta, helburua ondo sentitzea eta ondo pasatzea denez, bakoitzak nahi duena aukeratzen du. 20 kide inguru gaude, eta talde autogestionatua denez, Euskal Jaian karpako barra hartu dugu. Irakasleak guk kontratatu ditugu eta honek esfortzu bat eta gutxieneko konpromiso bat eskatzen du. Entsaioak hamabostetik behin egiten ditugu San Andres Eskolan. Hurrengoa hilaren 30ean izango da, 19:00-etan. Beraz, probatu nahi duena konpromiso barik etor daiteke.





## Musikari gazteak primeran ibili dira Madrilen

Aurten ere, Eibarko Koru Gazteko kideek eta Eibarko trikitilari eta panderojole taldekoek Aste Santuan izan dituzten oporrak aprobetxatu dituzte bidaia egiteko. Oraingoan, Madril aukeratu dute eta, besteak beste, han eman dituzten egunetan kontzertu bat eskaini dute eta musikal bat ikustera joan dira. Pazko-asteko martitzenean irten ziren Eibarko autobus geltokitik goizean goiz eta, esan digutenez, "bidaia oso luzea izan arren, ez genuen asperetzeko astirik izan, bidean abesten eta berbetan joan ginen eta". Madriler ailegatu eta jarraian, arratsaldean San Ignazio elizan egon ginen, iluntzean eman behar genuen kontzertua prestatzen. Madrilgo

eliza honetan mezak euskeraz egiten dituzte eta, gazteen berbetan, "guk, eman genezakeen onena eman genuen. Su Ta Gar taldearen "Itxaropena", Operación Triunfoko "Camina" eta Benito Lertxundiren "Nere herriko neska maite" kantatu genituen, besteak beste, eta abestiak asko gustatu zitzaizkion gu ikustera etorri zen jendetzari. Eta kontzertua amaitu zenean, jendeak gehiago eskatzen zuela ikusita, eliza kanpoan, trikitilari eta panderojoleen musikaren erritmorara dantzan hasi ginen. Euskal dantzak (fandangoa, arin-arina...) dantzatu genituen eta, horrez gain, dantzarik ez zuten abestiekin inprobisatzen ibili ginen eta, han sortu genuen anabasak giro ona, umorea eta



Puerta del Sol plazan dantzan eta kantuan ederto ibili ziren gazteak.

poz handia transmititzen zituzenez, paretik pasatzen ziren turistek mugikorraz grabatzen ibili ziren. Horrela, azkenenaren gure kontzertua ordu erdi luza-tu genuen. Eta, eguna biribil-

tzeko, Euskal Etxean afaltzera gonbidatu gintuzten. Afalostea trikitixaren erritmorra eta dantzan joan zitzaigun".

Hala ere, hurrengo egunean goiz esnatu ziren: "Goizean Gran Vian erosketak egin eta gero, arratsaldean 'Billy Elliot' musikala ikustera joan ginen. Izugarri gustatu zitzaigun ikuskizuna, abestien aldetik oso landua zelako, eta batez ere jantziak, argiak, eszenografia, dantzak... eta gainontzeko arlo bisualak ikusgarriak zirelako". Azken egunean, berriz, Puerta del Sol plazara joan ziren abestu eta dantzatzerara. Diotenez, "esperientzia itzela izan da eta ea datorren urtean ere beste nonbaitera joateko aukera suertatzen zaigun. Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu kontzertua ikustera etorri ziren guztiei eta, nola ez, San Ignazio elizakoei eta Madrilgo Euskal Etxekoei!".



Madriler ailegatu eta jarraian, arratsaldean San Ignazio elizan egon ginen, iluntzean eman behar genuen kontzertua prestatzen. Madrilgo

## JOSE LUIS EGUREN ELKORO I. URTEURRENA: 2017/IV/22

URTEBETE JOAN ZINELA, BAINA BIZI GAREN  
ARTEAN BETI GOGOAN IZANGO ZAITUGU

ETXEKOAK

Bere aldeko URTEURREN-MEZA ospatuko dugu apirilaren 22an  
(domekan), goizeko 11:00etan, Amañako San Salvador elizan.



# + osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz Klinika

943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*

**UniverSalud**  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**  
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**EIBAR** ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
Konpromisoa

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

Indibaterapia  
Kirol lesioak  
Drenaje linfatikoa

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20  
TEL. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57  
94 444 95 34

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691  
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluizio atipikoa  
Disfonia  
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak  
Berba arazoak  
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN



## Logopedak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba**  
Logopedia  
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ARRASATE)  
Mobila: 622-629-544  
logopeda@berba.es

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

· Katarata ebakuntzak  
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

## Psikoterapia

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR  
RPS: 32/17

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06

[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOIA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**PODOLOGOIA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOIA**

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEIDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOIA

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22  
[moreno\\_iciar@yahoo.es](mailto:moreno_iciar@yahoo.es)

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOIA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA  
ANTSIETATEA  
AUTOESTIMA  
ARAZOAK**

943 12 02 00  
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO  
DORREETAN

centro médico eibar



# Plateren artean

## Elikadura sistemaren etorkizuna arriskuan

**Neonikotinoideak munduan gehien erabiltzen diren intsektizidak dira**, eta inpaktu handia daukate biodibertsitatean eta elikadura segurtasunean. Nekazaritzan intsektizida honen erabilera luzatzea neurri eutsiezina da, eta gure elikadura sistemaren etorkizuna arriskuan jartzen du. *"EFSA (Elikadura Segurtasunaren Europar Autoritatea)-ren ikerlanek eta sektorean egin diren beste ikerketa guztiek erakutsi dute erleendako mehatxu onartezina dakarrela"*, azaldu du Walter Haeferer Erlezain Profesionalen Europar Elkartearen kideak.

Produktu kimikoei aurre egiteko erresistentzia abiadura handiz garatzen ari dira intsektuak, eta enpresak gero eta toxikotasun handiagoa daukaten produktuak garatzen ari dira. Eta haori guztia gutxi baltitz, ikerketek azaltzen dutenez, neonikotinoideen % 80 lurrian mantentzen dira eta uretan filtratzen dira, horrela produktu

kimiko hauekin tratatuak izan ez diren landareei eraso eginez, eta baita lehorreko ornogabeen ere.

Luzaroan pentsatu da neonikotinoideek errendimendu altuak bermatzen laguntzen dutela, baina ikerlan zientifikoek erakutsi dute hori ez dela horrela eta izurriteek oso azkar egiten dietela aurre substantziari, normalean 2 edo 3 urtetan. Zein da konponbidea? Bonmatinen esanetan, landareak bakarrik benetako ara-



## Kilometro 0 elikagaietan: Slow Food vs Fast Food

**Egun hauetan eguraldia denon ahotan erabili dugu**; izan ere, azkenean udaberria iritsi dela esan daiteke... Azoketako postu desberdinetan aurki ditzakegun sasoiko produktuak konsumitzeko urtarorik onenetakoa. Postu hauetan sarritan Kilometro 0-ko produktuak eskaintzen dituzte. Gertuko produktuak, ekologi-

koak eta sekulako kalitate apartarekin.

Km 0-ko elikagaien kontsumoarekin gure elikadura osasuntsuagoa izatea lortzen dugu, pestizidetatik, hormonetatik eta gantz asetuetatik kanpo. Gainera, inguruko ekonomia suspertzeko balio du. Ezinezkoa litzateke gure baserrietako produktuek eta



aitor buendia

LA RUTA SLOW-EKO  
GIDARIA RADIO EUSKADIN



zo bat dagoenean tratatu beharko lirateke, eta ez modu prebentiboan. Praktika hau oso zabalduta dago sektorean. *"Ez ditugu errendimendu altuagoak behar, ezta janari gehiago ere, behar duguna janari hobea da"*.

Slow Food-ek, Europar Batasuneko gizarte zibileko elkarteekin batera, EBeko Komisia eta estatu partehartzaieak presionatu ditu, behingoz neonikotinoideen erabilera geldiarazteko. Erleen populazioaren gutxitzeak eragin handia dauka nekazalgoan; aldi berean, produktu hauek luzaroan erabiltzen badira iturrien ura kutsatu egiten da eta hegaztiak eta arrainak bezalako beste animalien dauka eragina. Gure osasuna ahaztu barik.

Oso garrantzitsua da neonikotinoideak ahalik eta lehen debekatzea, ez bakarrik erleen onurari begiratuta, baizik eta baita gure osasunaren eta gure janariaren etorkizunaren ikuspegitik ere.

josu belaustegi

BELAUSTEGI JATETXEA



Kantauri itsasoak eskaintzen dizkiguten abantailak banan-banan aipatzea.

Eta azkenik, benetan ardurtzen gaituena: prezioa! Km 0 elikagaien ekonomikoagoak direla esan liteke, merkataritza,

garrario eta banaketa bitartekariak gutxitzen baitira.

Chef eta kontsumitzaile asko "bizitzeko modu honekin" identifikatzen dira, eta zu? Filosofia honekin bat egiteko prest?



## Eibar Igerixan taldeko ordezkari bi Malagako Espainiako txapelketan

Espainiako Open absolutu eta junior mailetako txapelak izan ziren jokoan aurreko asteburuan Malagan eta hara joandako Eibar Igerixan-eko bi igerilari-ek euren maila gorena eman zuten. Maite Barrueta-beñak aparteko txapelketa egin eta 100 metro libreko finalean bosgarren sailkatu zen, estilo erako 200 metroko finalerako ere sailkatuz. Jon Osa ez zen hain urrutira heldu, baina hala eta guztiz ere aurretik zituen markak hobetu zituen.

Bestalde, bihar 16:00etatik 20:00etara arte itxita egongo da Ipurua kiroldegiko igerilekua, bertan jokatuko baita benjamin mailako Ligaren bosgarren jardunaldia.



## Haritzak Euskal Ligara igotzeko play-offa jokatu du

Eibar Eskubaloiko senior mailako bigarren taldeak bikain amaitu du liga eta, Bergaran 23-32 irabazita, bigarren geratu da sailkapenean eta Euskal Ligara igotzeko fasea jokatzeko txartela bereganatu du. Aipatutako partiduan Egoitz Blancok bikain zuzendu zuen taldearen jokoa eta Jorge Martinez sendo egon zen atean. Somos gizonezkoen lehen taldeak 28-20 galdu zuen Errenterian Ereintzarekin; partidu horretan ordezkoez minutuak izan zituzten jokatzeko eta Garetxanak berriro jokatu zuen, lesiotik errekuperatuta. Bestalde, emakumezkoen lehen taldeak lider amaitu zuen bere multzoan Deustori 27-16 irabazita. Denboraldia agurtzeko partidu horretan, Itsaso Mendikute izan zen onena beste behin ere eta Irune de Castro eta Nahia Basterra jubenilek ere maila eman zuten, bakoitzak zortzi gol sartuta.

### Talde gazteenak goiko postuetan

Harrobiari erreposoa eginez, Teknikerrek jubenilek Legazpin irabazi zuten Gipuzkoako Kopako lehen jardunaldian (21-24); kadeteetan, bestalde, talde biek (Teknikerrek eta Komatek) irabazi egin zuten eta biek dute Federazio Sariaren finalerdietan jokatzeko aukera. Sari hori lortu du dagoeneko infantil mailako Hierros Servandok Errenterian 12-31 irabazita. Nesketan, Urkotronikek 7-25 irabazi zuen Ordizian eta Ametsak 13-17 Andoainean. Alebinetan, azkenik, El Tio Palancas-eko talde biak garaile izan ziren Elgoibarren aurka: mutilek 12-11 irabazi zuten eta neskek 7-13 emaitzekin.



## Maiatzeko zubia aprobetxatzeko lau eguneko irteera

Klub Deportiboko mendi batzordeak maiatzaren zubirako lau eguneko irteera antolatu du, apirilaren 28an (zapatuan) irten eta maiatzaren 1ean (martitzenean) bueltatzeko. Elgoibako Morkaiko mendi taldearekin elkarlanean antolatutako irteeran Moncayo (2.314 metro), Urbion (2.229) eta Cebollera (2.142) gailurrak egiteko asmoa dute eta parte hartzeko beharrezkoa izango da federatua egotea. Interesatuak izena eman dezakete Deporrek bulegoetan martitzen eta eguenetan, ohiko orduetean: 19:30-20:30.

## Anaitasuna-Uganeko Gorka Vila Gipuzkoako txapelkun judoan



Aurreko domekan Hondarribiko Jostaldi frontoian jokatuako eskola kiroleko Gipuzkoako txapelketan Gorka Vilak alebin mailako txapela jantzi zuen. Jose Antonio Hoyosen aginduetara judoan egin dituen aurrerapausuak erakutsi zituen beste behin Vilak 90 kirolari bildu zituen txapelketan.

*Gorka Vila Jose Antonio Hoyos irakaslearekin.*



*Avia Eibar Eskubaloiko senior taldeak denboraldi bikaina amaitu du.*

## Ipuruako gimnastek urrez jantzi zuten Ipuruan jokaturako Gipuzkoako txapelketa

Etxean jokatzek motibazio berezia eman zien Ipuruako 13 ordezkariari aurreko domekan jokaturako federatuen Gipuzkoako txapelketan eta ia maila guztietan podiumaren gorenean izan ziren. Horrela, seniorretan Nahia Arguizek eta Alaitz Aranbarrik urrezkoa lortu zuten elkarrekin, Arguiz pilotarekin onena izan zen eta Aranbarri aroarekin bigarren. Juniorretan Lur Aranburuk urrezkoa lortu zuen aroarekin, zilarrezkoa zintarekin eta brontzezkoa mazekin, Sara Arangurenak mazekin urrezkoa eta zintarekin brontzezkoa bereganatzen zituen bitartean, eta Indira del Pino bigarren izan zen aroarekin. Jubenil oinarrikoan Lorea Armendarizek urrezkoa irabazi zuen eta Arrate Barojak zilarrezkoa. Taldeka, azkenik, Ipuru 1 bigarren sailkatu zen eta Ipuru 2 hirugarren postuan.

Bestalde, zapatuan Bergarara joan ziren 18 gimnastek lortu zuten tokia Amateur eta A Eskola mailetakoko finalerako. Horrez gain, Sara Etxaburu eta Nahia Gonzalez onenak izan ziren senior+ eta kadete A mailatan, hu-



rrenez hurren. Bigarren, hirugarren eta laugarren postu asko lortu zituzten Ipuruakoek jardunaldi horretan.

Azkenik, atzotik hasita eta domekara arte, jokoan dira Guadalajaran Espainiako oinarriko banakako txapelketa, oinarriko taldeen Espainiako Kopa eta absolutuen mailako Erreginaren Kopa. Lehiaketa guzti horietarako 12 gimnastek osaturako ordezkari izango du Ipuruak.

## Errugbilari gazteenak indartsu liga amaieran



Avia Eibar Rugbyko talde gehienez denbaldia amaitu dute eta asteburu honetan amaituko du berea 14 urtetik beherakoenek Irunen Txingudiren aurka jokaturako duen play-offeko azken neurketarekin. Aurreko asteburuan, baina, heldutasuna eta elkarren arteko begirunea zer diren erakutsi zuten Unben Zarautz/Beltzak/Mutrikuren aurkako partiduan eta, 31-0 irabazteaz gainera, "talde osoak ikutu zuen baloia, denak protagonista bihurtu zituen norgehiagokan".

## Lomban eredugarriaren golak garaipena eman zion Eibarri Bartzelonan

David Lombanek partidu gutxi jokatu ditu aurten Mendilibarren taldearekin, baina amore eman beharrean gogotik saiatu da entrenamenduetan Espanyolen aurka herenegun izan zuen jokatzeko aukera ondo aprobetxatzeko. Bere golari esker gorri-urdinen taldeak garaipenik gabeko sei jardunaldiekin amaitu zuen. Horrez gain, atzelaria izan da Common Goal ekimenarekin bat egin duten gutxienetakoa: Juan Mata Manchester United-eko jokalaria buru duen ekimenean parte hartzen dutenek soldataren %1 ematen dute gizarte arlo beharretan gastatzeko. Eibarrek, bestalde, ez du atsedenerako beta askorik izango, bihar bertan partidua duelako eguerdiko 13:00etan: bi puntu gehiago dituen Getafe hartuko du Ipuruan.



## Bederatzi domina batu zituzten herriko atletek Elgoibarko jardunaldian

Aurreko domekan Elgoibarren jokaturako eskola mailako Gipuzkoako Txapelketaren lehenengo jardunaldian, Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak lan bikaina egin zuten eta, horrez gain, bederatzi dominekin bueltatu ziren. Metal bakoitzeko hiru domina beregantu zituzten. Horrela, urrezkoak Imanol Egidazurentzat (bi esku-ratu zituen, 220 metro hesietan eta pisu jaurtiketan) eta Miren Urizarrentzat (pisu jaurtiketan) izan ziren. Zilarrezkoak Aiora Unzeta (Vortex jaurtiketa), Miren Urizar (220 metro hesiak) eta Nora Zabalentzat (luzera jauzia) izan ziren. Eta brontzezkoak Miren Urizar eta Imanol Egidazurentzat (kasu bietan luzera jauzia) eta Enara Magunazelaiarentzat (pisu jaurtiketan)

## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

Eibar - Getafe (bihar, 13:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

Pradejon - Eibar (etzi, 11:30)

#### 2. B Maila

Burgos - Vitoria (etzi, 17:00)

#### Emakumezkoen Lurralde Maila

Beti Gazte - Eibar (bihar, 18:00)

#### Erregional Gorengo Maila

Eibar Urko - Zumaiako (etzi, 18:00)

#### 1. Erregionala

Intxurre - Eibartarrak (etzi, 16:00)

Urki - Ikasberri (bihar, 18:00)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

Lakua - Eibar (bihar, 12:00)

### FOBALL-ZALETUA

Esmorga - Reformas Hiru (bihar, 09:00)

Bar Areto - Bar Arkupe (bihar, 09:00)

Alkideba - Feredu Solutions (bihar, 10:30)

Ipur Sagar. - Azkena Adahi (bihar, 12:00)

Durango - L.P. Tankemans (etzi, 09:00)

Sporting Larragest - Bar Txoko (etzi, 10:30)

Slow XOK - Garajes Garcia (etzi, 12:00)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

Somos Eibar - Gure Auzune (bihar, 19:00)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

Katu Kale - Ordizia (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

Portugalete - Urbat Urkotronik (etzi, 13:15)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Claret Askartza (bihar, 20:15)

### PILOTA

#### Astelena (etzi, 17:00)

Elordi/Martija vs P.Etxeberria/Zabaleta

Retegi Bi vs Altuna

Dario/Irusta vs Ugalde/Martinez

### HIRU-TXIRLO

#### 49. Gipuzkoako Txapelketa

Elgoibarko San Pedron (bihar, 17:00)

### AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN



## Buruz-buruko pilota txapelketako partidua (Altuna vs Retegi Bi) domekan Astelenan

Aurtengo txapelketak Astelenan izango du hitzordua datorren domekan berriro, aurreko domekan izandako bi partiduei jarraitzen emanez. Oraingoan Jokin Altuna sartuko da lehiara, eszenategi berean 14-21ekoari buelta ematen jakin zuen Retegi Bi aurrean duela: ia kanporatuta egotetik txapelketan beste urrats bat ematea lortu zuen Julianen semeak eta neurketa polita aurrikusten da. Frontoi guztian inoiz ez dute elkarren aurka jokatu, baina iaz indarrak neurtu zituzten kaio-laren barruan San Fermin torneoan eta hor amezketarra nagusitu zen 22-13. Jaialdiari Elordi/Martija eta Pello Etxeberria/Zabaleta bikoteen artekoak emango dio hasiera eta Dario/Irusta eta Ugalde/Martinez artekoarekin amaituko da.

Bestalde, Klub Deportiboko pilota eskolakoek lehen mailako pilotari profesionalen entrenatzeko aukera izan zuten aurreko martitzenean Astelenan bertan: han izan ziren Aspe enpresako Rezusta, Elezkano, Elordi eta Zabaleta, txikienei jokoaren sekretuak erakusten.



Rezusta pilotari gazteekin martitzeneko entrenamenduan.

## Eslavak urrezko bi irabazi zituen Tarnosen

Aurreko domekan Frantziako Tarnos hirian jokaturako infantil mailako judo eta jiu-jitsu modalitateetako nazioarteko torneoan Kalamuako ordezkaria txapeldun izan zen bietan. Hala ere, ez zen bera bakarria izan Eibarrera dominarekin bueltatzen, urtero lez taldekide asko izan baitzituen podiumetan: judoan urrezkoa irabazi zuten



Gaizka Merinok eta Alex Jimenezek ere, zilarrezkoa Ibai Trokaolak eta brontzekoa Xuban Aranzabal, Markel Simon eta Jon Alberdik. Azken hau, gainera, zilarrezkoaz jabetu zen jiu-jitsun. Andorrako nazioarteko judo torneoan izango du hurrengo erronka senior, junior eta infantil mailatan banatutako Kalamuako ordezkartzak, "hamabost bat lagunek osatutakoak".

## Saskibaloia harrobikoak gero eta sendoago

Denboraldi honetan debutatu duen Eibar Saskibaloiko infantil mailako taldeak etxean jokatu zuen domekan Donostiako Illarramendi Santa Teresa GBC-ren aurka. Hasiera orekatuaren ondoren, bigarren laurdenetik aurrera, atzean geratzen joan zen markagailuan eta amaieran 23-51 galdu zuen. Hala eta guztiz ere, taldea mailari neurria hartzen doa eta "jokatzeko urte asko daramatzaten aurkarien aurrean borrokatzeko gauza dela erakutsi du". Saskibaloia eskolako taldea, bestalde, Hondarribira joan zen domekan eta han 27-56 nagusitu zitzaion beratko taldeari; talde mistoak oso ondo erantzun zuen eta baita bikain asmatu saskiaren aurrean.



## Basterrika ligako goleatzaile nagusiena waterpoloan

Play-offekin hasi aurretik, senior mailako Euskal Herriko Ligako azken jardunaldian Urbat Urkotronikek 15-10 irabazi zion Larrainari Danel Gonzalez soraluzetarrak debutatu zuen partiduan. Mikel Basterrika, 77 golekina, izan da denboraldiko goleatzaile nagusiena. Eibar taldeak Portugaleteko Nauticaren aurka hasiko du play-offa eta maiatzean Urbatekoek Espainiako txapelketa jokatu dute Madrilan. Emakumezkoen bigarren mailako Espainiako txapela ere jokatu izango da Madrilan eta Urbatekoek indarberritzeko beharra dute, play-offeko lehenengo kanporaketan 17-9 galdu ondoren Askartzarekin. Harrobiko talde mistoak, bestalde, nagusitu egin ziren azken jardunaldian: kadete mailakoek 15-14 irabazi zieten Lauro Ikastolako mutilei eta infantil mailakoak 7-17 nagusitu ziren Portugaleten.



## Xakeko lehen taldeak mailari eustea lortu du

Nahi baino larritasun handiagoarekin, baina Klub Deportiboko xakeko lehen taldeak hurrengo denboraldian ere Gipuzkoako 1. Mailan jokatu du. Taldekako Xake Txapelketaren azken neurketan eibartarrek 3'5-0'5 irabazi zioten Legazpiko Santikutz taldeari, Jon Arana, Ion Esturo eta Aitor Beorlegiren garaipenekin eta Jose Antonio Garridoren berdinketari esker. Azkenean eibartarrek 8. postuan amaitu dute, 20,5 punturekin. Hemendik aurrera beste era bateko txapelketak izango dituzte aurrean: asteburu honetan Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan jokatu dute xake eskolako ikasle batzuk, beste txapelketa irekiren baten ere parte hartzeko asmoa badute eta, jakina, ekainaren 30ean Sanjuanetako partida azkarren torneo ere hor izango da.



**RAMON BEITIA:** Lambretta, bere hasieratik gure eta mundu osoko errepedetatik bueltaka.



Bizia dantzari eman zion Juanita Unzuetak, eta dantzak bizia eman zion. Bidelagun izan zuen Sobietar Batasunean pasa zituen urteetan eta baita Eibarrera itzuli zenean ere. Dantzaren erreferente bihurtu zen Eibarren, ehundaka dantzari ibili ziren bere esanetara eta arrastoa utzi zuen herrian. Orain, bere heriotzatik urtebetera, dizipulu, dantzari, koreografo eta musikariek omenaldia eskainiko diote apirilaren 27an Coliseoan.



## Juanita anderearen omenez dantzan

**G**errak dantzan ibili zuen Juanita Unzueta. 1937. urtean, tropa frankistak Gipuzkoan barneratu zirenean, Sobietar Batasunera joan behar izan zen anaia Armandorekin. Harrera beroa jaso zuten Leningradon, eta Crimean bi hilabete pasatu ostean Moskun kokatu ziren, baina gerrak harrapatu zuen berriz, II. Mundu Gerrak. Herrialdearen erdigunera jo zuten, Kukusera, eta Moskura itzuli ziren gerra amaitzean. Bakea, behingoz, eta dantzaren munduan sakontzeko aukera.

Moskura itzuli zenean harrera-etxe ezberdin batean kokatu bazen ere, Bolshoi Antzerkiko Vladimir Biely irakaslearekin dantza klaseak jasotzen hasi zen berriz. Balleta ikasi zuen Bielyrekin eta dantzari profesionala izan zen Sobietar Batasunean. Hainbat emanaldi eskaini zituen dantzari moduan, Antzoki Handian zein lantegi handietako langile errusiarren aurrean jardun zuen, eta, aurretik, euskal jota bat dantzatu zuen Stalinen aurrean.

Dantzan egiteaz gain umeen dantza irakaslea zen eta Sobietar Batasunean ikasitakoa bere jaioterrira ekarri zuen 1956an. Dantza eskola sortu zuen Eibarren eta erretiroa hartu arte dena eskaini zion Ballet Eibarres akademiari, Jardíñeta kaleko bere etxean lehenik eta Urtzaile kalean gero. Urte horietan jasotakoa bueltatzen



*Iker Gomez  
koreografo  
eibartarra  
ikuskizunean  
izango da.*

saiatuko dira hilaren 27an 20:30ean Coliseoan dantza egingo dutenak. Juanitaren esanetara ibilitakoak edota bere ibilbidea omendu nahi dutenak bilduko dira bertan, mota askotako dantzen bitartez herriko dantzaren ikurra gogoratzeko bere heriotzaren lehen urteurrenean.



### Juanitaren gustoko dantzak

Juanita Unzuetak gustoko zituen dantzak eskainiko dira Coliseoko ikuskizunean, dantza klasikoak eta modernoak. Eibarko dantzaren gaur egungo panorama ikusi ahal izango da, Juanitak urte askoan Ballet Eibarres akademian egindako lanaren herentzia. Dantza Garaikidearen taldea, Kezka Dantza Taldea, Eibarko Koro Gaztea, Musika Eskolako akordeoi taldea eta, nola ez, Ballet Eibarres izango dira emanaldian parte hartuko dutenak. Gainera, Portugaleten dantza akademia bat zuzentzen duen Pilar Agirregomezkortak, Maite Lorenzo aktoreak eta Iker Gomez koreografo eibartarrak ere ikuskizunean parte hartuko dute. Lan kontuak direla eta Gomez ezin izango da Coliseora joan, baina proiektio baten bitartez bere harri-koskorra ekarriko du.

Dantzan egiten ikasi duten ume asko pasatu dira Juanita Unzuetak sortutako akademiatik eta dantza ogibide bihurtu duten batzuk ere badira. Horren eredu dira aurretik aipatutako Agirregomezkorta eta Gomez, eta baita Pili Alonso ere, Juanitaren lekukoa hartuta Ballet Eibarreseko gaur egungo arduraduna. Irakaslearengandik ikasitakoa belaunaldi berriei igortzen die Alonsok eta, omenaldiaren kasuan, Juanitari gustatzen zitzaizkion dantzak prestatu ditu beste taldeekin batera. Dantza klasikoetatik haratago, modernoak ere gustuko zituelako. Izan ere, dantza bere pasioa zen.



**JOAO AFONSO**  
(musikaria)

**- Zeca Afonso, zure osaba, oso presente dago Terra da Fraternidade Tourrean. Nolako eragina izan du osabak zugan?**

Zaila da nire osaba Jose Afonsori diodan maitasuna eta berarekiko maila profesionalen dudan mirespena bereiztea. Nire erreferente musikala da, zalantza barik. Bere buruarekiko zuen exijentzia, bere dohain poetiko eta musikalak, eta antzetzeko zuen gaitasuna eredu izango dira beti niretzat. Osabaren eragin handia izan dut nire ibilbide musikalean eta harro onartzen dut. Nire diskoetako unibertsoen aniztasunak hori erakusten duela uste dut eta gozamina da niretzat.

**- Rogerio Pires gitarrarekin batera zatoz Eibarrera. Nolako ikuskizuna eskainiko duzue?**

Sentsibilitate paregabea duen musikari eta gitarrarekin da Rogerio. 'Buganvilla' izeneko proiektua abiatu dugu nire lehen diskoko abesti baten izenburua hartuz. Adiskidetasun eta enpatia musikalean berezia daukat Rogeriorekin, eta plazer handia da

## "Oso pozik nago Euskal Herrira itzultzeagatik!"

Portugalgo kantautore handienetakoa da Joao Afonso. Jose Zeca Afonso musikariaren iloba Mozambikeko doinuen eta familiako musika legatuaren artean hezi zen, hoguei urte baino gehiagoko ibilbide arrakastatsu eta erreibindikatzaila osatuz. Apirilaren 29an, 20:30ean, Coliseoan izango dugu Rogerio Pires gitarrarekin 'Terra da Fraternidade' biraren barruan.

berarekin eszenatoki gainean egotea. Taula gainean eskainiko ditugun abestietan gure arteko konexioa ikusi eta entzun ahal izango dela uste dut.

**- Zure osabaren 'Grândola, Vila Morena' abestitik ateratako esaldia da "terra da fraternidade". Askatasun abesti bat da, Portugaleko iraultzaren eta demokrazien sinbola. Nolako boterea izan dezake musikak?**

Askatasun ereserkia da Grandola. Askatasun individual handiko gizona izan zen nire osaba. Pentsamendu askatasuna onesten zuen, esaldi honetan erakutsi zuen bezala: "ni naiz neure komite zentrala". Abestiak garrantzia handia dauka eta erreferentziala da niretzat. Iraultzarako gako moduan, demokrazia eta askatasun balioen defentsarako eredu da gazteentzat.

**- Musika-estiloak nahastea ohikoa da eta modan dago gaur egun, baina zuk jaiotzetik bizi izan zenuen mestizajea. Nolako izan zen musika egitera bultzatu zintuen unibertsoa?**

Mozambikeko kaleetan entzundako doinuek, eta latekin eta ahotsekin anaiei eta niri aitak erakusten zizkigun abestiek eragin handia izan dute sortu ditugun abestietan, orain dela 20 urte sortutako 'Missangas' lanetik 'Sangue Bom' nire azken diskora.

**- Zure musikak mugak gainditu ditu eta Euskal Herrira ailegatu da. Nolako harremana daukazu Euskal Herriarekin eta euskal musikarekin?**

Lagun eta kide euskaldunekin ikasteko zortea izan dut eta sarritan etorri naiz Euskal Herriari jotzera. Euskal Herriko hainbat proiektutan parte hartzeko aukera izan dut (aitortzen dut ez zela erraza izan) eta herri abegitsua aurkitu dut. Kepa Junkera (trikitixaren maisua eta musikagile aparta), Xar-nege, Fran Lasuen eta Angel Unzu (bere disko ederrean abesti baten letra egin eta kantatu ahal izan nuen) lagunekin esperientzia musikalekin partekatzeak aukera eduki dut. Oso pozik nago Euskal Herria itzultzeagatik!

## Gonzalo Azumendi argazkilariaren tailerra

Datorren astean aurkeztuko dute Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek "Argazkilaritza Maiatzean". Urtero egiten den moduan, hainbat argazkilariren lanak erakustez gain, argazkilaritza tailerra eskainiko dute. Aurten Gonzalo Azumendi, bidaietan espezializatutako argitalpen ospetsuenetarako lan egiten duen argazkilaria emango du tailerra, maiatzaren 12an, Portalean (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara). Tailerraren prezioa 20 eurokoa da eta izena emateko argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da (plaza mugatuak dira).



## Garagardo dastaketa egingo da eguaztenean

Eguaztenerako garagardo dastaketa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek, Illunabarriaren egitasmoaren barruan. Saioa 19:00etan hasiko da, elkartearen egoitzan eta mota askotako garagardoak probatzeko aukera izango da, Iker Etxebeste (Brew&Roll) eta Mikel Irazabalek (Baobeer) hainbat garagardo aurkeztuko dituzte-eta. Parte hartzeko aurretik ...eta kitto!-n izena eman behar da (kuota 3 eurokoa da).







## Helduentzako ipuin musikatuak eskainiko dituzte eguaztenean

Juan San Martin udal liburutegiak helduentzako ipuin musikatuena saioa antolatu du eguaztenerako, Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratzeko. Emanaldia 19:00etan hasiko da, liburutegian, eta Emakume Eskoletako bikoteak (Maite Arrese, ipuinak kontatzen eta Mau Ziemkiewicz, biolinarekin) eskainiko du. "Amodiozko ipuinak" izenburupean bildutako ipuin sorta eskainiko dute eta saioa elebiduna izango da (ipuin bi euskaraz eta beste biak gazteleraz eskainiko dituzte, beti ere musikaz lagundurik).

## Santa Kurutz jaietako bertso-afaria

Apirilaren 28an (zapatua) egingo da Santa Kurutz jaietarako urtero antolatzen duten bertso afaria, 21:00etan Ixua jate-txean, Julio Soto eta Amets Arzallus bertsolariekin. Afaltzen hasi aurretik, 19:00etan trikipoteoan abiatuko dira Untzagatik eta Ixuara joateko autobusa, berri, 20:30ean irtengo da Ego Gainetik. Txartelak 25 euro balio du (afaria eta autobusa barne) eta erosteko Mugika harategira joan edo 699953003 telefono zenbakira deitu behar da.



## Bertso-bazkarirako txartelak salgai



Arrajolape jai batzordekoen eskutik, urtero bezala bertso bazkaria egingo da Legarre-gain elkartean, maiatzaren 19an. Parte hartuko duten bertsolariak Manu Goigana eta Jokin Bergara dira eta gai-jartzailea, berri, Desi Magro. Bazkaltzeko entsalada eta gisatua prestatuko dituzte (postrea, kafea eta txupittoa ere prezioaren barne egongo dira). Txartelak Bolintxon eta Legarre Beheko fruta dendan eros daitezke, 20 eurotan helduek eta 10 eurotan umeek (azken eguna maiatzaren 13a izango da).

## "Keeper" filmaren emanaldia

Filmazpit egitasmoaren barruan, eguaztenean "Keeper" filma jatorrizko hizkuntzan (frantsesez) eta euskarazko azpitituluekin ikusteko aukera izango da Portalean. Lau emanaldi eskainiko dituzte (10:00etan, 14:30ean, 17:00etan eta 19:00etan). Guillaume Senez-ek zuzendutako filmak 95 minutuko iraupena dauka eta nerabezaroan gertatutako haurdunaldien gaia lantzen du. Proiektzioa Udal Euskaltegiak, AEK-k eta Eibarko Udalak antolatu dute.



## Isaskara ikuskizuna gaur Coliseoan

Gaur arratsaldean, 18:00etan estreinatuko dute Coliseoan "Isaskara" ikuskizun musikala Mogel Isasi BHI-ko ikasleek. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta ikuskizunaren aurretik txarteldegian erosteko aukera izango da.



## Musika saioa Torrekuian

Aurreko astean egindakoaren bidetik, gaur arratsaldean, 18:30ean Musika Auzoz Auzo egitasmoaren barruan antolatu duten bigarren saioa egingo da. Gaur DJ Arima Cool-en txanda izango da, Torrekuian.

## Senegalgo sukaldaritza tailerra

Munduko Janariak, ...eta kitto! Euskara Elkartean eskutik ikasturte honetan abiatu den ekimenaren barruan, laugarren tailerra egingo da martitzenean. Senegalgo jaki tipikoa den "Nem" izenekoa egiten ikasteko saioa Portaleko sukaldean izango da, arratsaldeko 18:00etan. Izena emateko 943200918 telefonora deitu edo ongiatorri@etakitto.eus helbidera idatzi daiteke.

# MARITXU OLARRA OLAZAGIRRE

(MARITXU ARRATE)

I. URTEURRENA (2017-IV-17)

**"Gure bihotzetan landatu zenduan Maittasunari esker betetzen dogu juan ziñanetik laga zenduan hutsunia"**

ETXEKOAK

**ASKO ZARIE GURE AMAREKIN AKORDATZEN ZARIENAK, EDERRAK BERARI ESKINDUTAKO BERBAK. ESKERRIK ASKO BIHOTZETZ!**





EVA PEREZ DE ALBENIZ

## Postureoa II

Aste batzuk direla, Malen Illaramendik postureoari buruz idatzi zuen zutabea gustora irakurri nuen eta zer pentsatu eman zidan. Bere baimenarekin jarraipena eman nahi nioke...

Nik ez ditut nire oporren argazkiak instagramera igotzen, ezta lagunekin egindako afaria facebooken partekatzen. Egia esateko ez dut konturik ez batean ez bestean.

Baina postureoa praktikatzeko ez dira sare sozialak behar. Sare sozialak pertsonak gudan daukagun joera baten bozgorailu bilakatu dira: besteek gustoko izango duten gure aurpegia erakusteara. Eta sakontzeko asmoz galdetzen dut: zergaitik daukagu pertsonak joera hau? Zertarako gure bizitza perfektua bezela erakutsi nahi? Zertarako miseriak alfonbra azpian ezkatu?

Lotsa daukagulako, eta lotsaren azpian beldurra. Zeren beldurra? Maitatua ez izatearena, onartua ez izatearena. Besteek gure miseriak ezagutzen badituzte ez gaituztela onartuko pentsatzen dugulako. Ahula naizela konturatzen badira, akabo. Gizakumeok ADNean itsatsita daramagun behar bat konexioarena da. Jendea hurbil sentitu behar dugu. Besteak gu onartzea eta maitatzea, jana eta edana bezain beharrezkoak ditugu.

Baina gure ahuldadea, gure hauskortasuna, gure zaurgarritasuna... hori ere ADNean josita daramagu. Loktitekin itsatsita. Lapa bat haitzari bezala.

Denok behar dugu besteen maitasuna eta onarpena sentitzea eta denak gara ahulak eta hauskorak. Beraz ez astirik galdu bi hauek uxatzen edo deuseztatzen, oso lan nekagarria da eta onurarik ez dakarrena.

Irtenbidea askoz errezagoa da. Egin zeure buruari galdera hau: Zeintzuk dira nire benetako lagunak? Bere barruak erakusten dizkidatenak. Nor maite dut? Bere ahulezia erakutsi eta onartzen duena. Beraz, "plantixura" e-berba bikainaren aurrean, nik "maitahule" apalagoa proposatu nahi dut.



## Euskera eta feminismoa izan ziren apirileko berbaldiaren ardatza

Aurreko barixakuan egin zen "Euskara eta feminismoa" izeneko bosgarren berbaldia udaletxeko patioan, horretan adituak diren Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrerekin. Esan zizutenen artean gauza bat baino gehiago da azpimarratzeko modukoa. Besteak beste, "euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna antzekotasun asko dituzten bi prozesu pertsonal, sozial eta politiko" direla adierazi zuten:

*"Euskal hiztuna eta emakumea subordinazioan daude. Bien aurkako menperakuntza moduak berberak dira, eta, beraz, subordinazioari aurre egiteko diskurtso eta praktikak partekatzea onuragarri izan daiteke".* AKEBAIren Hamaika Berbaldi egitasmoaren barruan antolatuta da apirileko solasaldia, Arrate Kultur Elkartearekin, Nalua Eibarko Talde feministarekin eta Hankamotxak bertso eskolarekin elkarlanean.

## Gazte Eguneko kamiseta lehiaketa antolatu dute



Jaixak Herriak Herrixandakok aurtengo San Juan jaietako Gazte Eguneko kamiseta aukeratzeko lehiaketa ipini du martxan. Parte hartzeko baldintzak oso sinpleak dira: kamisetarako diseinuaren baitan "Jai euskaldun, parekide eta partehartzaileak" eta "Jaixak Herriak Herrixandako" esaldiak egon beharko dira idatzita eta lanak e-postaz bidali beharko dira, jaixakherriakherrixandako@gmail.com helbidera. Bidaltzeko azken eguna maiatzaren 17a izango da. Jasotzen dituzten proposamenen artean sari bi banatuko dituzte: irabazlearentzat Hirurok tabernan bi lagunentzat afaria eta jaietan egingo den herri-bazkarirako bi txartel eta bigarren geratzen den diseinuarentzat, berriz, herri-bazkarirako bi txartel. Animatu eta parte hartu!

## Plazatik Gaztetxera bertso-txapelketa Eibarrera bueltan

lazko etenaldia eta gero, aurtenguean izango da berriz ere Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa, bere 16. edizioan. Finalaurreko saioa datorren asteko barixakuan, apirilaren 27an egingo da Eibarko Gaztetxean eta afari-rako txartelak Beleko eta Buenos Aires tabernetan ipiniko dituzte salgai, 6 eurotan.







### Erresistenteekin bat ELGETAN

Asteburu osoan gogoratuko dituzte Elgetan Intxortako erresistenteak, 81 urte eta gero. Gaur 19:00ean "Komikiz komiki, lubakiz lubaki" komiki-kontakizuna egingo dute Elgetako udaletxean. Bihar eguerdian, berriz, haurrek egindako marrazkiekin murala osatuko dute Mendizaleen plazan; 18:30ean bisita gidatua egingo dute eta, ondoren, Sakatu Elektrotzarangak kaleak girotuko ditu. Eta domekan, 11:30ean frontean hildakoei omenaldia egingo zaie Intxortako Atean. Ondoren, Elgetara martxa egingo da eta 12:45ean "Elgetaren gainbehera" antzezlanaren egingo dute Elgetako kaleetan.



### Erdiko Aroko Azoka eta kontzertua ERMUAN

Gaurtik hasita eta domekar arte, Erdi aroko azoka egingo da Ermuko Orbe kardenalaren plazan, goiz eta arratsaldean, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatuta. Bestalde, **Diego Cantero "Funambulista"** kontzertua eskainiko du apirilaren 27an Ermuko Antzokian, 22:15ean. Kantautore legez hasi eta gero talde sendo eta egonkorra osatu zuen, eta bere sortzailearen ezaugarri berezia duen pop-talde baten arima bihurtu da. Sarrerak 12 euro balio du.

### eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

### hildakoak

- **Agustin Garitaonandia Ramos**. 59 urte. 2018-IV-12.
- **Manuel Hernandez Baranda**. 85 urte. 2018-IV-15.
- **Emilio Esteban Del Rio**. 59 urte. 2018-IV-15.
- **Jesusa Gorrotxategi Lizarralde**. 100 urte. 2018-IV-16.
- **Nieves Urionabarrenetxea Jaio**. 72 urte. 2018-IV-16.

### jaiotakoak

- **Lizar Cordoba Alberdi**. 2018-IV-2.
- **Jorge Mora Aberrane**. 2018-IV-10.
- **Aday Etxeberria Padilla**. 2018-IV-13.
- **Safa El Hallabi**. 2018-IV-16.

### farmaziak

- Barixakua 20**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 21**  
DOMEKAZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 22**  
EGUNEZ **Mandlola** (San Agustin, 3)
- Astelehena 23**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 24**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 25**  
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 26**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 27**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI - 2018AN-  
**Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### SUDOKUA

AURREKOAREN  
EMAITZA

7	9	4	3	6	2	1	5	8
5	3	2	9	1	8	7	4	6
1	8	6	4	5	7	9	3	2
9	6	5	7	8	3	4	2	1
8	7	1	2	4	5	6	9	3
2	4	3	6	9	1	8	7	5
4	5	7	1	2	6	3	8	9
3	1	8	5	7	9	2	6	4
6	2	9	8	3	4	5	1	7

6	2			4	3			1
7	4			5	1			
							5	
		6	3				9	7
4	1				7	6		
	9							
			7	3			1	5
5			1	2			3	8

### telefono

### jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 20

### MUSIKALA

**18:00.** "Isaskara" Mogel Isasi BHI-ko ikasleen ikuskizuna. 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

### MUSIKA

**18:30.** Musika Auzoz Auzo: DJ Arima Cool-en eskutik. Torrekuian.

### KIROLAREKIN BAT

**18:30.** Markel Alberdiren ibilbidea.

**19:00.** Amaiur Mayoren ibilbidea Euskal Selekzioan. Oparien zozketa. El Corte inglesean (2. solairuan).



### GURE ESKU DAGO

**19:00/20:30.** Ekainaren 10ean egingo den giza katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

## Zapatua 21

### TATUAJEAK

**10:00/20:00.** "Los tatuajes marcan la diferencia" jardunaldia. Astelena frontoian.

### LEGION 501

**18:00.** Zatoz "Legion 501" taldeko soldaduak ezagutzera. El Corte Inglesan (3. solairuan).

## Domeka 22

### JAIALDIA

**12:00.** ...eta kitto! Euskara Elkartearen 25. Urteurrena ospatzeko jaialdia. Sartzeko gonbidapena behar da. Coliseo antzokian.

## Astelehena 23

### ZINE-FORUMA

**18:30.** "Gladiator, la mujer gladiadora". Antolatzailea: Pagatxa emakume taldea. Sarrera librea. Portalean.



## Martitzena 24

### IKASTEN

**10:00.** "Espainia, estatu plurinazionala, erosotasunaren dialektika eta bereizpenaren artean" hitzaldia, Asier Blas Mendoza, EHU'n Zientzia Politikoak eta Administrazioan doktorearen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Punto-tailerra.  
**17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### TAILERRA

**18:00.** Munduko janarien tailerra: Senegal. Portalean (sukaldean).

## Eguaztena 25

### IPUIN MUSIKATUAK

**19:00.** "Amodiozko ipuinak: helduentzako ipuin musikatuak", Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoratzeko. "Eskeletoak". Maite Arrese (ipuinak), Mau Ziemkiewicz (biolina). Juan San Martin Liburutegian.



### GARAGARDO DASTAKETA

**19:00.** Illunabarrian programaren barruan. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

### DANBORRADA

**19:00.** San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.

**20:00.** Helduen danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokaletan (Beistegi eraikinean).



## Eguena 26

### IKASTEN

**10:00.** "No te consumes" hitzaldia, Julen eta Maider Santamaria neba-arreba eta Donostiko Virtuss menpekotasun zentruko terapeuten eskutik. Armeria Eskolan.



### KALEETAN KANTUZ

**17:00.** Dantza (beheko maila).

**18:00.** Dantza (maila altua).

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### GURE ESKU DAGO

**19:00/20:30.** Ekainaren 10ean egingo den giza katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.



#### Apirilaren 20ra arte:

- J.A. BONOREN OMENEZKO ARGAZKIAK (*Untzagako jubilatutxoa*)
- LA SALLEKO IKASLEEN LANAK (*Untzagako jubilatutxoa*)

#### Apirilaren 29ra arte:

- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN LANAK (*Portalea*)
- "EGUNGO ISLAK" IGNACIO ZULOAGAKO IKASLEEN LANAK (*Portalea*)

#### Apirilaren 30era arte:


- ISABEL CASELLASEN ARGAZKIAK (*El Ambigú*)
- JAIONE GARCIAREN ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)
- GRACIA DE LA HOZEN ARGAZKIAK (*Depor taberna*)




Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NAI, printzesa, bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Aitta, ama eta, batez be, Iratiren partez. Patxo haundi bat!




Zorionak, AITOR Gonzalez Valenzuela, hillaren 14an 9 urte bete zenduazelako. Musu bat aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, MARKEL, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu eguna. Patxo morduua famelixa eta Telmoren partez.



Zorionak, OIHENART, etxeko "manitas"!, haraiñegun 7 urte egin zenduaz-eta. Patxo bat aitaxo, amatxo eta Aioraren partez.




Zorionak, LUKEN, atzo 6 urte egin zenduaz-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez! Muuuua!



Zorionak, PAULA, bixar 9 urte egingo dozuz-eta. Musu potolo bat etxekuen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ADRIAN Garcia, domekan 13 urte beteko dozuz-eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAI Mondragon Urizar, hillaren 14an 7 urte egin zenduazelako. Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, AMA!, astelehenian urtiak egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat, Gurutzeren partez.



Zorionak, URKO, hillaren 26xan 4 urte beteko dozuzelako. Musu asko eta besarkada haundixa Anerren partez.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, hillaren 14an 11 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL Lasuen, bixar 6 urte beteko dozuz-eta, txapeldun! Patxo potolua aitaxo, amatxo eta, batez be, ANNERen partez. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, MARKEL, zapatuan 6 urte egingo dozuzelako. Osaba-izeko eta lehengusu-lehengusiñen partez.



Zorionak, OSKAR (gaur) eta NAHIA (etzi 9 urte), zeuen urtebetetzian. Ondo-ondo ospatu! Musu haundi bana.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


21ean: 19:45, 22:30

22an: 20:00

23an: 20:30

"Lady Bird"

Zuzendaria: Greta Gewig



(2 ARETOAN)

21ean: 17:00, 19:45, 22:30

22an: 17:00, 20:00

23an: 20:30

"Cariño, yo soy tú"

Zuzendaria: Bruno Chiche



(ANTZOKIAN)

21ean: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30

22an: 17:00<sup>(1 Aretoa)</sup>, 20:00

23an: 20:30

"Campeones"

Zuzendaria: Javier Fesser



(ANTZOKIAN)

21ean: 17:00

22an: 17:00

"Rabbit School"

Zuzendaria: Ufe von Münchow





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.
- Pisia hartuko nuke alokairuan. Tel. 671-972733.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia edo trasterodun garaje marraduna hartuko nuke alokairuan Ipuan edo Legarre inguruan. Tel. 646-369330.
- Pabilioi industrialak alokagai Elgoibarko Olasto poligonoan, solairuaratean. 200+70 m<sup>2</sup>. Instalazioarekin. Tel. 649-258913.
- Garaje itxia alokatzen dut Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.
- Lokala alokatzen da Eibarko erdigunean. 100 m<sup>2</sup>. Akademia edo kontsultarako ego-kia. Tel. 606-065518.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-518050.
- Neska eskaintzen da pisuak, bulegoak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko arratsaldean. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-130513.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-786952.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Erreferentziak. Tel. 612-571098.
- Emakumea eskaintzen da pisuak, tabernak edo soziedadek garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da txakurrak pasiatzeko. Tel. 605-598999.
- Gizona eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, eraiikuntzan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272992.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, altzariak muntatzeko etabar. Tel. 643-272996.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-837079.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako arratsaldean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 646-821678.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. Interna. Erreferentziak. Tel. 631-316890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-545148.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-991664.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-823897.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserria zaintzeko. Tel. 631-062076.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-617281.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko, goizez 08:00etatik 11:00etara eta arratsaldean 15:00etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. Tel. 722-799308.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 602-139807.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-413892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-430380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 612-540997.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Klinika-laguntzaile titularekin. Tel. 632-404101.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 600-099460.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-067042.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-644435.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-659802.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-576611.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo asteburuetan. Esperientzia. Tel. 631-406177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-914989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta baserrian jarduteko. Tel. 688-735551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da gaez edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-301325.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-827097.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-235118.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-482526.

## 4.2. Langile bila

- Sukaldaria behar da Eibarko negozio berri batean janaria etxera eramateko. Esperientziarekin. Tel. 657-773205.
- Kamarera behar da jatetxe batean asteburu eta jaiegunetarako. Esperientziarekin. Bidali curriculum: kamarera18@hotmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketetarako prestaketa (EGA, IVAP, ...) eta umeentzako eskolarako erreferentzia. Tel. 620-608065.
- Batxilergo 2. Mailako ikasleak ingelesezko irakaslea behar du. Tel. 625-019711.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.



# Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuk inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. Zuk aukeratutakoa da.

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
[www.oarsocar.com](http://www.oarsocar.com)

**ELGOIBAR**  
**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**Olaso Polig., 17**  
**BEASAIN**  
Errepide Nazionala, 1  
943 80 40 54

**943 74 14 80**  
**IRUN**  
Juan Thalamos, 43  
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autentizat. BEZ, garrailo, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxienean epean eta 36 hilabeteko gutxienean egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziakoa finantzira-erakundeak aztertuta eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentze- eta ibilgailuaren finantziakotzei lotuta. \* Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko duen Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentze- eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) web-orrian.

## ATE IREKIAK EIBARKO ORBEA HAURRESKOLAN

**APIRILAK 26, arratsalde 17:00-19:00**

**ETORRI ETA EZAGUTU GURE  
HAURRESKOLA!!!**



**MUGIMENDU  
LIBREA**



**MATRIKULAZIO  
EPEA:  
Apirilaren 30etik  
Maiatzaren 11ra**

**HAUREN  
ERRITMOAK  
ERRESPETATUZ**

Bittor Sarasketa, 11  
[orbea.eibar@haurreskolak.eus](mailto:orbea.eibar@haurreskolak.eus)  
943200384







# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)